

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko irailaren zortzian, arratsaldeko zazpiak direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzongo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Xabier Unanua Goicoechea
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ez dira etorri, eta ez dute ezin etorria adierazi, Jose Peinado Cuesta eta Maria Nieves Uterga Juango. Udalburuaren esanetan, ez dute parte hartu nahi eguneko aztergaietan ageri diren mozioen eztabaidan.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2009ko uztailaren 16an egindako Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2009ko uztailaren 15az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

UE-7 UNITATEA URBANIZATZEKO BEHIN BEHINEKO HARRERA

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko irailaren 3an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, Irurtzongo Udal Planeko UE-7 Unitatea urbanizatzeko lanak behin-behinekoz hartzea erabaki da aho batez.

ENPLEGURAKO LAGUNTZAK ESKATZEA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko irailaren 3an egindako Bilkuran onartutako proposamenarekin, honako hau erabaki da aho batez:

1.- Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari jakinaraztea Irurtzongo Udala interesaturik dagoela parte hartzen Gizarte Gaiak, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuak Oinarrizko Errentako onuradunak kontratatzeagatiko diru-laguntzak jasotzeari buruz ekainaren 24an emandako 249/2009 Foru Aginduaren deialdian.

2.- Pertsona bat kontratatzea proposatzea, hiri-altzarien eta lorategien mantentze-lana egiteko, eta kaleak garbitzeko.

ESKOLA GARRAIOA ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ALDATZEA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko irailaren 3an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, aho batez erabaki da hasiera batean onartzea eskola-garraioa erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa aldatzea, 8. artikuluko lehen paragrafoa ezabatuta. Testua honako hau da: "Tasak sei hilean behin kitatuko dira. Bajarik emanez gero, ikasle bakoitzari ikasturteko tasa osoa kitatuko zaio."

EUSKARA ARLORAKO DIRU LAGUNTZAK

Euskara Batzordeak 2009ko irailaren 2an egindako Bilkuran onartutako proposamenarekin, honako hau erabaki da aho batez:

1.- Euskara ikasteko ondoren aipatzen diren diru-laguntzak ematea 2009ko aurrekontuaren 4510 48201 kontu-sailaren kargura:

- 119,60 euro Montserrat Viñas Punzadori.
- 119,60 euro María Carmen Morillas Cuevasi.
- 139,20 euro Montserrat Tíscar Morenori.
- 93,44 euro Jesus Mancicior Iriarteri.
- 139,20 euro Jose Angel Unzueta Martinez.
- 139,20 euro Margarita Ruiz Martini.
- 248,40 euro Maite Beraza Loidiri.
- 119,60 euro Maria Eugenia Gurucelain Elustondori.
- 139,20 euro María Esther Davila Martinez.
- 119,60 euro Maria Vilches Cuevasi.

- 139,20 euro Javier Beraza Loidiri.
- 139,20 euro Erwan Maori.
- 119,60 euro Maria Angeles Cuevas López.
- 175,60 euro Patxi Xabier Goñi Lazkanori.
- 64,80 euro Iñigo Amezqueta Azcarateri.

2.- Nafarroa Oinez en antolatzaileei 1.200,00 euroko diru-laguntza ematea, 2009ko aurrekontuko 4510 48201 kontu-sailaren kargura.

3.- Bierrik fundazioari 1.890,00 euroko diru-laguntza ematea Guaixe aldizkaria etxez etxe banatzeko, 2009ko aurrekontuko 4510 48201 kontu-sailaren kargura.

Akordio honetako 2. puntuari dagokionez, Euskara Batzordearen proposamena aldatu egin da, eta 200,00 gehitzea erabaki da; kopuru hori landareak erosteko, eta ondoren zaintzeko erabiliko da, Arbizun baso bat sortzeko. Ekimena Nafarroa Oinezeko antolatzaileek sustatu dute. Aldaketa Irurtzun Bai - Nafarroa Bai udal-taldeak proposaturik egin da; hartara, euskara eta ekologia uztartzen direla ulertuta.

3. puntuari dagokionez, onartu aurreko eztabaidan, Iriarte jaunak proposatu du aldizkaria banatzeagatik eman den diru-laguntza justifikatzea; horretarako, hitzarmena sinatuko litzateke Bierrik Fundazioarekin udalak, aldizka, bere tartea izan dezan aldizkarian iragarkiak, programak... argitara emateko. Horrela, bere iritziz, udalak laguntza ematen du, eta kontraprestazioa jasotzen du.

Arruabarrena andreak azaldu du Bierrik Fundazioarekin harremanetan paratu dela, eta hitzarmena sinatzeko aukera proposatu diola. Fundazioak erantzun du printzipioz proposamen horrek ez duela lekurik fundazioaren filosofian.

Murugarren jaunaren iritziz, proposatutako kontraprestazio hori Udalen baten erabil lezake fundazioa presionatzeko eta haren independentzia murrizteko.

ALAIN BERASATEGIren BAHIKETA DELA ETA, BAT EGITEA ARBIZUKO UDALAREN AKORDIOAREKIN

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko irailaren 3an egindako bileran puntu hau eguneko aztergaietan sartzea proposatu zuen.

Eztabaida labur baten ondoren, Arbizuko Udalaren akordioarekin bat egitea erabaki da aho batez. Aipatu akordioa Arbizuko seme Alain Berasategiren bahiketaren ondoren hartu zen, eta gaur egun ere indarrean dago:

“Uztailaren 17an, Arbizuko Alain Berasategi Mariñelarena 7 orduz izan zuten bahiturik, eta, tortura eta mehatxuen bitartez, Espainiako indar armatuekin kolaboratzea exijitu zioten.

Gertaera larri hori dela-eta, Arbizuko Udalak, ezohiko bileran, mozioa onartu zuen. Horretan, besteak beste, udalei eta alkate eta zinegotziei mozioarekin bat egitea eskatu zuen. Eskaera berbera luzatuko zaie hainbat gizarte-eragileri ere: Sindikatu, lantegi, elkarte...

Mozioak bi puntu ditu:

- Alain Berasategi Mariñelarenari elkartasuna erakustea.
- Herritarren giza eskubideak, eskubide zibilak eta politikoak deuseztatzen ahalegintzeak dakarren errepresioa salatzea.”

NAFARROA BAI - IRURTZUN BAIren MOZIOA ETAREN ATENTATUAK DIRELA ETA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko irailaren 3an egindako bileran puntu hau ere eguneko aztergaietan sartzea proposatu zuen.

Jarraian, irakurketa eginda, onartu egin da Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Unanua jaunen eta Ongay andrearen aldeko botoekin: Murugarren jaunak eta Arruabarrena andreak abstentziora jo dute. Hauxe da onartutako testua:

“ETAk eginiko atentatuak:

Burgosko polizia-etxearen aurka (maila desberdineko 64 zauritu).

Carlos Saez de Tejada Garcia eta Diego Salva Lezaun guardia zibilen aurka Mallorcan.

Horiek direla-eta, Irurtzun Bai – Nafarroa Bai taldeak ekintza horiekiko gaitzespena eta arbuioa azaldu nahi du.

Ezin da inolaz ere indarkeriaren erabilera justifikatu helburu politikoak lortzeko.

Ezin da onartu giza eskubideen urraketarik aldarrikapen politikoen aitzakian.

Euskal gizartea bakea eskatzen ari da, eta ETAk eskaera horri erantzun behar dio berehala, honela:

- Armak alde batera utzita. Aldebakarrekoa.
- ETAk ez du Euskal Herria ordezkatzeko, eta ezin da Euskal Herriak nahi eta desio duenaren gainetik egon.

Horregatik guztiarengatik, honako akordioa eskatzen diogu udalari:

- 1.- ETaren atentatuak irmoki gaitzestea.
- 2.- Gure doluminak helaraztea hildakoen senideei eta lagunei.
- 3.- ETari eskatzea armak utzi ditzala inolako baldintzarik gabe.
- 4.- Akordio hau hedabideetara igortzea. ”

Bozketa aurreko eztabaidan honako esku-hartzeak izan dira:

Murugarren jaunak honako afera hauek aztertu ditu bere esku-hartzean:

- EAE-ANVko hautetsia den aldetik, indarrean dagoen gatazka konpontzearen alde agertu da.

- Bere iritziz gaitzespenek ez dute inolako soluziorik ekartzen, irudia emateko erabiltzen dira, eta anitzetan hipokritak dira. Honi dagokionez, PSOEko gaur egungo agintariak GALEkin izandako lotura ekarri du, PPko ohorezko presidentzian Franco garaiko ministro bat egotea, eta UPNk 36ko hiltzaileekin duen oinordetza-lotura; horiek guztiek ETaren indarkeria gaitzesten dute.

- Horrez gain, gaitzespenarekin, arestian aipatutako horiek errentagarritasun politikoa atera asmo dute; ikusi besterik ez dago Nafarroa Bai taldeari egiten dioten presioa.

Iriarte jaunak esan du ados dagoela Murugarren jaunak adierazitakoarekin, baina, hala ere, bere iritziz ETak bere jarduna eten egin beharko luke, defendatzen duen ideologiaren kontrako delako, Estatuari indar gehiago ematen diolako, eta gizartearen erantzuna moteltzen duelako.

IRURTZUN BAI – NAFARROA BAI TALDEAREN MOZIOA VILLABONAKO ZINEGOTZIAREN HILKETA DELA ETA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko irailaren 3an egindako bileran, aurreko puntuetan bezala, puntu hau eguneko aztergaietan sartzea proposatu zuen.

Irakurketa eginda, mozioa aho batez onartu da. Testua honako hau da:

“Villabonako zinegotzi Remi Ayestaranen heriotza dela-eta, Irurtzun Bai – Nafarroa Bai udal-taldeak honako erabaki hau hartzea eskatzen dio udal honi:

- 1.- Villabonako ANVko zinegotzi Remi Ayestaranen senideei eta lagunei doluminak eta elkartasuna erakustea.
- 2.- Udal honen iritziz, heriotza argituko bada, Remi Ayestaranen heriotzan ikerketa publikoko espedientea aurkeztea derrigortzen duten hainbat gertakari izan dira.
- 3.- Akordio hau Villabonako Udalera eta hedabideetara igortzea.”

IRURTZUN BAI - NAFARROA BAI UDAL TALDEAREN MOZIOA ANEZKA GARRAIO PUBLIKOEI BURUZ

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko irailaren 3an egindako bileran puntu hau eguneko aztergaietan sartzea proposatu zion osoko bilkurari.

Irakurketa eginda, mozioa aho batez onartu da. Testua honako hau da:
“Azaroaren 23ko Foru Legeak osasun arretak unibertsala behar duela izan xedatzen du, eta hori nafar guztiei bermatu behar zaie inolako bereizketarik gabe.

'Foru Lege honetan jasotako ekitate printzipioak herritarren osasun-mailetan egon daitezkeen desberdintasunak murrizte, eta osasun-sistema erabiltzeko baldintzetan berdintasuna bermatzea ditu xede... Osasun-sistemako zerbitzuak erabiltzeari dagokionez, Foru Legeak aukeraberdintasuneko printzipioa aldarrikatzen du, zerbitzuen erabilera fisiko hutsera mugatuko ez dena. Foru Legeak osasuna ororenganatzearekin bermatzen duen administrazio-aukera eta aukera finantzarioa ere erdietsi behar ditu'.

'Kontsultara joateko eta osasun-arreta espezializatuko probak egiteko anezka garraio zerbitzu kolektiboa eta egokitua' izeneko mozio honen ondorio den proiektu-dokumentuak bere oinarrian honela dio: 'zerbitzuak berdintasuna eta ekitatea ditu oinarri, alegia, Foru Erkidegoko pertsona guztiek dute osasunerako eta mediku-probak egiteko eskubide eta baldintza berdinak, non bizi diren kontuan hartu gabe... Eta berdintasun eta ekitate printzipio horietan oinarrituta'.

Aipatu guztiarengatik, Irurtzun Bai - Nafarroa Bai udal-taldeak honako akordio-proposamena egiten du:

- 1.- Irurtzungo Udalak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari eskatzen dio 'Kontsultara joateko eta osasun-arreta espezializatuko probak egiteko anezka garraio zerbitzu kolektiboa eta egokitua' izeneko proiektua, soilik Lizarra eta Tuteran hartzen dituen, berriz azter dezala, ez baititu, 10/1090 Foru Legean jasotakoaren arabera, Foru Erkidegoko herritar guztien berdintasun- eta ekitate-printzipioak betetzen.

2.- Honako hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari:

A) Proposamen berri bat egin dezala, eta zerbitzurako irizpidea erreferentzia-ospitalea beharrez, beste batzuk erabil ditzala, besteak beste:

- Etxebizitzatik ospitalera kilometrotan dagoen tartea.
- Familiaren irizpide sozioekonomikoak.
- Errentaren arabera, eta abar.

B) Proposamena Nafarroan onartuko den zerbitzu-zorro berria sar dadila.

C) Aipatu zerbitzua osasun-garraioa antolatzeko eta/edo kudeatzeko eredu berria sartzea aztertzea.”

Mozioa onartu aurreko eztabaidan, Murugarren jaunak esan du mozioa osatu gabea dela; izan ere, Nafarroako Gobernuari zerbitzua bere gain hartzea eskatu beharko litzaioke, eta, gobernuak zerbitzua pribatizatu asmo badu, lehiaketa bitartez esleitu dezala bederen. Zerbitzuak Nafarroa osoa hartu behar duela azpimarratu du.

EAE-ANVko HAUTETSIEEN MOZIOA, ESPAINIAKO ESTATUAK EUSKAL PRESO POLITIKOEN KOLEKTIBOAREN AURKA ABIARAZITAKO ERASOARI BURUZKOA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko irailaren 3an egindako bileran puntu hau eguneko aztergaietan sartzea proposatu zion osoko bilkurari.

Jarraian, irakurketa eginda, atzera bota da EAE-ANV udal-taldeko hautetsiek aurkeztutako mozioa. Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas eta Unanua jaunek eta Ongay andreak aurka bozkatu dute, eta Murugarren jaunak eta Arruabarrena andreak baiezkoa bozkatu dute. Hauxe da mozioaren testua:

“Estatuak euskal preso politikoen aurka abiarazitako erasoak ez du mugarrik.

Euskal preso politikoen kolektiboa bera da Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoaren frogarik argiena. Herritarrek presoekiko elkartasuna eta maitasuna erakutsi du urte luzez; horren lekuko dugu Euskal Herriko txoko guztietan astero antolatzen diren mobilizazioak.

Udal hau biziki kezkatuta dago Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek azken aste hauetan ostatu eta jaietan egin dituzten erasoaldi militarrekin. Orain udalen txanda da. Fronte konstituzionalistaren eta horren sateliteen presioa onartezina da.

Hainbat udalek berriki pairatu duten agindu eta presio polizialaren aurrean, osoko bilkura honek erabaki du:

1.- Gobernuko arduradunek, epaileek eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek abiarazi duten errepresio aldi berri honi gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi diogu. Halaber, gure elkartasuna adierazi nahi diegu azken asteotan bidegabeko eraso horiek pairatu duten pertsona, talde edo espazio fisiko guztiei.

2.- Euskal preso politikoen kolektiboarekiko elkartasun-lana erakunde ofizialetatik ezkutuan gorde nahi den gatazkaren errealitatea da. Era berean, elkartasuna gatazka konpontzearen alde egin daitekeen ekarpenik handienetako bat da.

3.- Euskal Herriko gizarte-eragile, eragile sindikal eta politiko guztiei dei egiten diegu gatazka konpontzearen alde lanean jarraitzeko. Gatazkaren ondorioak alderdikieriaz eta arduragabekieriaz baliatzea, gatazka konpontzeko bidean aurrera eginez soilik gaindi daiteke.

4.- Euskal preso politikoen senideek eta lagunek pairatzen duten eraso juridiko-politiko horrek dakarren babesik ezaren aitzinean, udal honek horiekiko hurbiltasuna adierazi nahi du.

5.- Akordio honen berri emateko, udalak bando berezi bat lantzeko eta banatzeko konpromisoa hartu du, eta, halaber, Nafarroako Gobernuko erakundeetara eta hedabide guztietara igortzekoa.

Bozketa aurreko eztabaidan Iriarte jaunak dokumentu hau irakurri du:

“ANVko hautetsiek aurkeztu duten mozioa dela-eta, Irurtzun Bai udal-taldeak honako hau adierazi nahi du:

Bat gatoz, eta erabat arbuiatzen dugu Madrilgo Gobernu, Nafarroako Gobernu eta Eusko Jaurlaritza azken hilabeteotan euskal preso politikoei edozein elkartasun-adierazpen kriminalizatzeko eta zanpatzeko abian paratu duten estrategia.

Politika hori beste gai batzuetara ere zabaldu dute, helburu batekin: gizartean amorrua eta liskar-giroa sortzea. PSOE-PP-UPNren alderdikeria.

Demokraziaren aurkako eta lekuz kanpo dauden ekintzak gaitzesten ditugu, besteak beste: establezimenduetan presoek argazkiak kentzea, poliziaren kargak herri-kalejiretan, eta presoekiko elkartasuna adierazi nahi duten manifestazioak edo ekintzak debekatzea.

Elkartasuna ezin da kriminalizatu.

Euskal preso politikoei (besteei bezalaxe) ezin zaizkie beren eskubideak ukatu espetxean egonda:

- Atxilotzean errugabetasun-presuntzioa.
- Atxilotze-garaian tratatu txarrak edo torturarik ez jasatekoa.
- Espetxean daudenean, beren eskubideak errespetatuak izatekoa.

- Legeek agintzen dutena betetzekoa; zigorraren 2/3ak betea dituztenean, edo gaixotasun larria dutenean.

Askatasuna lortzen dutenean, beren eskubide zibilak errespetatu behar dira, beste edozein herritarrari errespetatzen zaion bezala.

Senideek eta lagunek presoak inolako trabarik gabe bisitatzeko, eta inolako jazarpenik gabe harreman normalizatua izateko eskubidea dute.

Legeak betetzea exijitzen dugu, Euskal Herriko espetxeetara hurbiltzea, eta horien artean, presoaren herritik hurbilen dagoenera.

Aurreko hau garbi adierazita, ez diogu babesik emanen ANVko hautetsiek aurkeztutako mozioari, bat ez gatozelako aitzinsolasarekin eta mozioan jasotako hainbat punturekin.

Arestian aipatu bezala, presoek dituzten eskubideak errespetatzea exijitzen dugu, baina ezin diogu gure elkartasun politikoa adierazi Euskal Preso Politikoen Kolektiboa deritzonari, lehenik eta behin, ez gatozelako bat horren estrategia politikoarekin. Beraiek duten pentsamolde berdina ez dutenak, eta bereziki kolektiboarekin bat ez datozenak eta borroka armatuaren aurka azaltzen direnak “persona non grata” izendatzeko edo kolektibotik kanporatzeko duten buruaskitasuna arbuiatzen dugu.

Egia da (ulergarria eta errespetagarria) herritarren zati batek presoekiko elkartasuna adierazten duela eta haiek gogoan dituela, baina egia da baita ere gizartearen gehiengoa eskatzen ari zaiela ETA erakundearekin batera armak uzteko, eta soilik bide zibilak erabiliz politikoki jarduteko bideari heltzea.

Guztiz bat gatoz esatean indar politiko eta sozial guztiek lan egin behar dutela gatazka konpontzen (egoera guztietan).

Baina kontuan hartu behar dugu gatazka gaur egun dagoen honetan egotearen erantzukizuna ez dela euskal gizarte osoarena, konfrontazio estrategia zaharkituei eusten dietenena baizik. Gizarteak jarrera goitik behera aldatzea eskatzen die.

Gatazkaren ondorioak alderdikieriaz erabiltzea, edo ondorio horietatik etekin politikoa atera nahi izatea dagoeneko salatua dugu, baina, egiazki kezkatzen gaituztenak dira saihets daitezkeen eta saihetsi beharreko ondorio horiek (heriotzak, torturak, mehatxatuak, atxiloketak, gorrotoa, legez kanporatzeak, beldurra, eta abar).

Irurtzun Bai - Nafarroa Bai udal-taldeak ez du inola ere onartzen “gatazkaren ondoriotzat” giza eskubideak eta eskubide zibilak urratzea, eta premisa horrekin egoera horiek ez salatzea. Jarduera bakoitzak bere erantzukizun politikoa du.

Mozio honi dagokionez, lehen eta laugarren puntuei babesa emanen genieke, ez, ordea, besteei; izan ere, gure iritziz, beste puntuetatik ondorioztatzen dira gure pentsamoldearekin bat ez datozen kontzeptu eta estrategia ideologikoak eta politikoak.

Atal guztietan salatuko ditugu eskubide urraketak, baina ez diegu babesik emanen gure adostasuna merezi ez duten premisa ideologiko edo jardueri.”

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Ez dago.

GALDE-ESKEAK

Iriarte jaunak honako aitorpena irakurri du:

“Azken hilabeteotan oroimen historikoaren, establezimenduen, ibilgailuen, Udalen (Lesaka, Bera, Baztan, Arbizu), eta ezkerreko herritarren eta kargu publikoen aurkako erasoak eta mehatxuak gertatzen ari dira Nafarroan. Falangek eginak eta sinatuak, talde horren ideologian sorburu duen izaera faxista dute.

Deigarria da ikustea nola ari diren zabaltzen, eta nola ari diren gero eta maizago gertatzen gure herrialdean.

Erasoek agerian uzten dute antolaturik, planifikaturik daudela, eta oraingoz erabateko inpunitatea dutela.

Horregatik guztiarengatik, Irurtzango Udalak honako hau adierazten du:

- Oroimenaren aintzatespenaren eta Nafarroako ezkerreko gizartearen aurka zuzendutako mehatxu eta eraso faxista horiek salatzen eta gaitzesten ditugu erabat.

- Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari eskatzen diegu ekintza horiek sala eta gaitzets ditzatela, eta, aldi berean, gertakariak ikertzea eta argitzea eska dezatela, horien erantzuleak aurkitze aldera.

- Kaltetu guztiei, eta, bereziki, Arbizuko Udalari eta hautetsiei gure elkartasuna helarazten diegu.

Aitorpen hau prentsari, Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Parlamentuari eta Arbizuko Udalari igorriko zaie.”

Aitorpena irakurrita, bertan diren zinegotzi guztiek bat egin dute idazkiarekin.

Murugarren jaunak gazte-taldeek elkartzeko erabiltzen dituzten lekuetan zakarrontziak paratzea eskatu du, eta, aldi berean, leku horiek garbi zaintzearen inguruan kanpainaren bat egitea eskatu du.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta hogeiak eta hamar minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.